

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Gobernuak, Nafarroako Urrezko Domina eman dio Saray, Bularreko Minbiziaren Nafarroako Elkarteari

Exekutiboak elkarrekin gaixoei eta beraien familiei ematen dien borondatezko aholku zein laguntza eta borroka honetan gizartearen inplikazioa lortzeko egiten dituen ekintzak aipatu ditu

Asteazkena, 2018.eko azaroak 7

Gaurko bilkuran, Gobernuak foru-dekretu bat onartu du, eta, haren bidez, Nafarroako Urrezko Domina, Saray, Bularreko Minbiziaren Nafarroako Elkarteari eman dio, elkarrekin "gaixotasun horrek kaltetutako pertsona zein familiei zuzenduta eskaintzen duen laguntza psikosoziala zein lan eta estetika arloan ematen duen babesagatik, eta hezkuntzan, prebentzioan eta garapen pertsonalean ematen duen aholkularitzagatik".

Sari hau Foru Komunitateko ohorezko sari gorena da, eta, hari dagokion dekretuak jaso duenez, Sarayk bere lanarekin gaixotasun hau jasaten duten emakumeek eguneroko eta gizarte bizimodura bueltatzeko egiten duen inkorporazio zein errekupeazio lana jaso ditu. Gainera, zehazten denez, "elkartean lan egiten duten ordezkariekin eta borondatez laguntza eskaintzen duen talde zabaleko kideen eguneroko lanarekin gizarte guztia inplikatzeke ekintzak burutzen dituzte, ikerketa proiektuetan ekonomikoki parte hartzen dute eta beraien helburuak zabaltzeko asmoz sare eta gizarte plataformetan ere aritzen dira".

Gobernuak azpimarratu du, Sarayren lana "eredugarri zein borondatezkoa da, eta osasuna sustatzen du, gizarte hobetzeko helburuarekin".

Ohorezko sari gorena Nafarroaren Egunean egiten diren oroitzapenezko ekitaldietan emanen da. Aurten, Urrezko Domina ematea erregulatzen duen araudia aldatu denez, deialdi publikoaren bidez, instituzio, entitate, erakunde eta pertsona fisiko zein juridikoek hautagaitzak aurkez zitzaketan.